

## FRANTZISKOTAR GORAZARREAK

### BITORIANO GANDIAGAK ONDUAK

Frantziskotar santuen (fraide, serora eta sekularren) ospakizunetarako gorazarreak, euskaraz sortuak, dituzu hemen bilduta: Orduen Liturgian nahiz bestelako elizkizunetam erabiltzekoak. Badaude frantziskotar euskaldunek, familia batekoek edo beste-koek, bereziki ospatzen dituzten hiru jaietarakoak ere: Jesusen Izen santuaren festaburua (urtarrilaren 3an), Artzain Onaren Ama (III. Bazko igandearen ondorengo larunbatean) eta Arantzazuko Ama (irailaren 9an).

Lan eta ibilbide luzea, hogeitabat urtekoa, izan dute gorazarreok, bilduma osatu, burutu eta orain argitaratu arte –horren historia laburra ikus daiteke liburu honen atzealdeko txostentxoan–. Hainbat lagunek hartu du parte bidaian: olerkari eta idazle, irakurle eta ohargile, musikari eta kantari, kopiatzaile eta zuzentzaile, eragile eta editore. Fraideen anaiarte eta seroren ahizparte otoizgileek ere hartu dute parte. Auzolaneko bidegintza, beraz.

Poeta bat ageri zaigu, ordea, langile nagusi eta protagonista funtsezko: B. GANDIAGA. Laurogeita zortzi gorazarreko bilduma honetako gehien-gehienak berak zuzenean onduak dira. Berarekin batera idazle taldetxoak osatu zuten hasieran, eta denen artean banatu gorazarrean lehen idazketa. Taldekoen artean aitortpen berezia zor zaio Asentxio Elustondo zenari, berak idatzitako gorazarre hainbat Gandiagaren eskuetan ipini zuenari. Zehazki esanda, "Beatriz doatsu" (Silvako Sta. Beatriz) eta "Zure Semea artzaintzan dabil" (Artzain Onaren Ama) Elustondorenak dira,

Gandiagaren ukitu txiki eta guzti; era berean Elustondo jo behar dugu beste lau hauen autoretzat ere, Gandiagak aldaketa askotxo sartu bazuen ere: "Gau lehenean bizkor eta esna" eta "Argi ibili duzu" (Sta. Beatriz), "Pozbide dugu ta esnagarri" (S. Maximiliano Kolbe) eta "Goraipa dezagun" (Jesusen Izen santua). Inork idatzitako beste hamar bat gorazarre abiapuntutzat baliatu zituen Gandiagak, baina bere erara guztiz birlandu; berau da horrelakoen autorea. Taldeko ahaleginean aurkezturiko beste hainbat gorazarrek ez zuen aurrerabiderik izan. Bilduma osoa jarri dugu, beraz, Gandiagaren itzalpean, liburu honen autore aitortuz.

Gogoz eta deboziorz saiatu zen gure poeta bere bizitzako azken 10 urteetan, gaitz larriek harrapatua zuten haietan, hil arte (2001eko otsailean). Honela dio bere egunkarian (1994ko otsailaren 14an): "Ordenako santuen omenezko beste gorazarre bat lantzen eman dut goiza eta arratsaldearen zati on bat ere bai". Eragile eta laguntzaile nagusietakoa izan zuen Jose Luis Zurutuza, Arantzazuko fraidea; beronek agertu zigun modu laburrean haren metodoa: "Gaixotasun bitarteko urte hoiak, lan garrantzitsu batean eman zituan: frantziskotar santu eta santei gorazarreak egin, larogetik gora ontzeraino. Gertu-gertutik jarraitu nion zeregin hortan: hobekuntza-tarteak bilatuz, santu/a bakoitzaren bizitza irakurtzen zuan, harekin otoitz egin eta paperean gorazarre bihurtzen saiatzen zen. Eta hurrengoan, egina berriro irakurri, hemen ukitu han ukitu, bere gustora jartzeraino." ("Frantziskotar olerkaria", *Arantzazu*, 2001, abuztua/iraila, 5).

Lehenago Euskal Herriko Elizbarrutietako Liturgi Batzordeak eraturiko taldean jarduna zen Gandiaga. Orduen Liturgiako euskarazko libururako gorazarreak lantzen, Eustasio Etxezarreta batzorde-buruaren gidaritzapean.

Ezagunak zituen, beraz, Eustasiok gure gorazarregilearen dohainak. Frantziskotar Gorazarreen bilduma honen berri izan zuenerako (1999); oso aintzakotzat hartu zituen Gandiagak ho-

rren ohar kritikoak. Orain, argitaratu aurretik, berriro ipini dugu bilduma osoa beraren eskuetan; goitik behera arduraz aztertu ondoren, eta hainbat ohar baliozkorekin batera –eskerrik asko!–, honako iritzi pertsonala bidali digu:

*“Ikusten dut santu bakoitzaren bizitzako berezitasuna deskribatzen dutela gehienbat. Hori, bai, oso txukun eta duintasun handiz eginga dago, azaleko gauzetan gelditu gabe, bakoitzaren barne-bizitzaren berri emanez.*

*Horrekin batera esan behar dut, ikuspegi literariotik oso ondo landutako olerkiak iruditu zaizkidala. Ikusten da ordu asko eman zizkiola Biktorianok lan honi; lehenengo, santu bakoitzaren bizitzako gorabeherak jakiteko, eta, gero, hori guztia sakon eta duintasun handiz landutako era literarioan euskaraz esateko. Neurri desberdineko eta forma askotako estrofa erabiltzen ditu; errima edo puntuak, berriz, fintasun handiz zainduak dauzka.*

*Azkenik, izugarrizko aberastasuna daukazuela iruditzen zait esku artean [frantziskotarrok] zuen liturgi ospakizun bereziak egiteko. Denak batera ez bada ere, mereziko luke pixkana-pixkana testu horiei musika jartzen joatea.”*

Liturgi batzorde hartako gorazarregileen taldekoa izan zen Joan M. Lekuona olerkaria ere, “euskal poetak izan daitezke onak, oso onak... edo Gandiaga” esan zuena (1998). Hurrengo urtean, hain zuzen, irakurri eta aztertu zituen antorearekin batera gorazarreok: “bikaintzat eman zituen”, Zurutzak ziurtatua digunez. Gandiaga hil ondoren, arrenka etorri zitzaion Joan Mari bere fraide lagun bati, haren frantziskotar “himnarioa” argitara emateko eskatuz, balio handikoa zela eta.

Erlizjiozko gorazarre liturgikoaren generoa gogoko izan zuen Gandiagak, bereziki bere azken urteetan. Hemengo frantziskotar santuen bildumakoez gain, bestelako hainbat ere idatzi zuen garai hartan: Jesu Kristoren Piztuera edota Igandea kantatzen zutenak, adibidez; horietakoren batzuk Pello Zabalak jantzi zituen doinuak.

Gorazarrean doinuei buruz gaineratu behar dugu zerbait, hain zuzen ere. P. Zabalak sortuak zituen tarteka bilduma honetako gorazarre jakin batzuentzako doinuak, eta abestuak ere bai Arantzazuko fraideen anaiartearen otoitzaldietan. Argitalpen honi begira hogeiko sorta polita landu ahal izan du, horietakoren batean edo bestean gorazarre gehienok abestu ahal izateko moduan. Liburu honen atzealdean doaz horiek denak, eranskin moduan. Ondoren doaz beste sei, Sta. Klararen gorazarreenak, lehendik *Santa Klarari kantari* liburuxkan (SKL) argitaratuak –testuak Gandiagarenak, doinuak Zabalarenak–. Eta azkenik, hiru doinu –bi herritar eta bat S. Mitxelenarena– gaineratu ditugu, beste zenbait gorazarreri egokitzekoak. Eranskinetako doinu guztiak sailean daude zenbakituta: 29 doinu, denetara.

Eranskina bera siglaz aipatu dugu liburu honetan: FGD = Frantziskotar Gorazarreen Doinuak.

Gorazarre bakoitzaren buruan doa doinuaren erreferentzia, FGD-ko zenbaki eta guzti: bat, edo gehiago, abestu nahi dituenaren aukeran. Badaude FGD-n jaso gabekoen erreferentziaren batzuk ere, gorazarregileak ipiniak: *Orduen liturgiako doinuak* (OLD) liburukoak edo bestelako kanta ezagunenak; beste batzuetan gorazarreko bertsoaren neurria bakarrik adierazi dugu, nahierara aukeratu ahal izateko horren doinua. Gutxi batzuk –hamaika– doinu indikaziorik gabe geratu dira.

"Frantziskotar santuen betikoa" saileko gorazarrearen batzuek azpigitulu modukoa daukate, kaxotxen artean ipinia: *Frantziskotar Orduen Liturgia Berezia* liburuan Santu bakoitzaren ofizioan idatzitako errubrika adierazten du horrek.

*Edizioaren arduraduna*

Donostia, 2012ko otsailaren 6an  
San Martin Loinazkoaren eguna